# Kirikiño 1935

¡¡Kirikiño!! Ixena entzun-orduko iri dogu irudimenian gixon baten irudija. Nik neurian dakusana gixon edaŕ ta zabala da. Irri-paŕe samuŕa ta azeri-antzeko begirune zoŕotza. Baña patxadatsua ta mer-tekoŕta diruri. Sorbalda-zabal, buru-jasua, soiñ lodikote zuzena, euzkotaŕ jatoŕa. Bildur barik urreratu ta ondoratu geinkijoz. Ziri batzuk eginaren ezti-ruri asaŕatuko danik.

Baña... zelan ziri? Ekan il? Egijā da; il zan. Aren oroipena bizi da, oraindiño. Oroipena ez bakaŕik zeozer geyago be bai. Bere lanak, idastijak, ... Lan oreik-bide ba-dazakegu Kirikiño.

Nik, neuk dazagudanez, darakusketsuet.

Ilaŕ bat lenengo. Abaŕak idasti bijak izan dodaz eskuetan. Ipaŕengi, aldizkingi ta abaŕetan egin euzen lanen bereizik ezin (1) neikixue emon?

~~Gaur~~ Kirikiño elertitaŕ dagerkiketsuet gaur. Bere-nek euzkera-alde egin dabena ta eŕijak egin dautsen aŕera onaren zegatijak beste baten azalduko dautsuedaz.

\+ \+ \+

Era gustijetako gixonen lorokak didorokezuz Kirikiño Jaunaren iponetan. Ori dozuz Euzkadi'n dabiltzazan gixon oroen irudijak. Baserritarrak, kaletarrak, mahetuak, txiruak, aberatsak, buru-ariñak, buru-gogorrak zitalak, bakekuak, azerijak, ariñak, apalak; danetarikuak dozuz.

Bere iponok dirala-ta, amaika barre egineraso dau Kirikiño'k. Barre.... bai. Beste askok, be, iñoren-lepoz barre egineragiten dabe, baterpe gure baserritarrak dirala-ta. Ezta, baña, Kirikiño orretariko oreen orpokua.

Nor dozu, ba? Ibai-bastarreko orma-ganian zabal-zabal jarrita, ujel zikin loyak daruazen errekarijen kuntura barre dagin ziztriña? Zeri oratu ez, ta urak daruazeta gixago orrei eskua luzaketa zirrika ta mirrika diardunen-bat? Urkuari lenengo adarra jo ta gero arri burruz gurz-ana barre egin? Ezta biderkua ori. Ezta Kirikiño oren tartekua.

Badakizi, bai, gixonak zelan biderakeen diran. Ez bakarrik jalunika edo itxaldi bijozkor, garbu ta apañen-bidez, beste era batez, be, bai.

Umiari lenago gura ezeban gauzaren gogua ba-dakizue zelan egiten jakon. Gogo ori sortuarazoteko bide asko dagoz. Sarri askotan len eukana ezestia, atzetijetia

3/ lakorik eztago. Mutiko bateri bere oñetakuak andrez-
kuenak dirala be-dinotsazu, beiñelaxe dakuskezu ~~laster, dozu~~ bere oñetakuak
zelan jaurti asmatu eziñda. Beste batzuetan len eu-
kazanak ezestia ezta naikua, baie apur bat egin eta pis-
kabat zirikatzia natar-naierkua da. Orixe da kirikiño'ren
burubidia, asmua. Zirikatu bai, bana bide onera ekertiaran.
Bere ipoin geyenetan didorogu ~~ala~~ nako edo alako ikas-
kizunen bat. Batzuetan argi ta garbi darakuskuz bere
asmuoi, beste batzuetan ziarka ta erdi-azaldu egiten dau.

\+ + +

Ipuiñlarija da kirikiño; edozelakua ez.

Euzkotar asko euren edari-egarija ito-nahi akeri itturi-
jetara duaz; edari bila akeri-barrutijetan-ziar dabiltz. Gure
elertibarrutijetan elbitz iger ta latza besterik ez?

Euzkera laga ta erderara; etzeko ezertxu, be, ekatua
atsegin eta matagari. Eztazagunik zelan mate? Ezagutza
da mate-iturburua. Akeri-lurrunak lausotu egin daus-
kuz gure begijak; akeri ane eriak kiskaldu dauz gure
almenak. Auzokotuta bizi gara. Akeri-neurkiz neur-
tu gure doguz gure gauzak. Ana garituta, marigos-
tuta daukanak zelan trastanteko gauza gozorik?

Erderazko lanetan dakuskuzan irudi ta apaingarrijak
eztaukozan elerti-lana bertanbere esten dogu. Zorakeri ta
nabarmenkeri josita ezpa-dakusku... ezer bez.

4/

Gure ba-dogu geure ereidijak. Gure elertilarijak be. ba-dabe ereidimena. Kirikiño'k be. bai, sorotsa ta bizija ala, be. Kirikiño'ren ipoñetan ba-dogu anitz-irudi jatorrak. Irudi-ugelik ezta tusteere; bai, oratiño nonipein, ~~banaka-banaka ta edozemak~~ baña.

Kirikiño'ren jardunak, baterpe alkarrizketak bizi-bizijak dira; nonipeinigo ta tarteko ereidijak tartipartatadirudije.

Gayaren apurak azaltzeko ezta nekatzen. Labur ta eutsu dagerkigu bere amesak. 'Joskera' ipoin banaka batzuetan (1) ezta oren jatorra; arapatuta eginak izan-edo.... Izanala berez jatorkola dirudi, baña jatorkonorri batzuetan edozelan esaten dau. Zelan esan ertaŋ oldozten.

Esakunta sakon, mamintsuak ugari. Badezpadako joskerak aldiz-aldiz esakuntzar biziztasuna damotsela uste dot.

Eritoya dau. Bere anitz-ereidijak euzko-bereezijetan izanzijak. Eretza, laua.

Bere ipoñik edarienak zirizi-saletan dogu. Norbi uste oren egi latz ta legorrak oren eretz, leun eta argi azaldu leikerana....

Eskola-maixu jatorra izango zan Kirikiño. Jira ta bira, ereidi-bidez baño ezpa-da, be, egoki ta eretz azaltzen dauz gauzak. "Peruren negozioa", "Bizikako erakaspen bat";

6./ Barre-egin gura ba-dozu irakuŕi ipoinok. Eŕijaren euzkera ondo ikasi gura ba-dozu, irakuŕi ta ez asperta.
Ipoin eŕetz ta samuŕ oŕetan zer ikasi asko dido-rokezu.

Baña, "lirika" ames-irudiorik eztaukala-ta, ez eretsi; Zuk idoroten ez-pa-dozu, be, nor-edo-nork idoroko dau ezto-gozua.

* * *

Euzko-elerti baratzian ba-dozuz, irakurle, tantai luze aŕuak, zugatz mardul oŕituak. Bata tantaipietan, zugazpietan tarteka-tarteka lore apal usaintsuak, be.
Tantai gurijak mate dabez txoritxuak; besanga-zabal lusiak atsegin miragaŕiak.
Erletxuak, ostera, tantaipietako loretxuak. Eta loretxuo-tan dabe euren gose-asegaŕirik onena.

Arikmendi-Arieta'tar J. M.ª

1935'gn Apirilaren 25'an